

3. Azkue jaunak bere *Morfología* irakurri du.

Ta beste gairik izan ez-da otoitzez amaitu da batzaraldia..

**Bilbo'n, Aldundi-Jauregian, 1925'ko Ilbeltza'ren
29'an.**

Batzaraldian bildu diran euskaltzain jaunak abek dira : Azkue maipuru, Urkijo, Landeñetxe. Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Altube ta Lakonbe eta urgazletatik Ormaetxea, Belaustegigoitia eta Oleaga.

Oiturazko otoitza egin da.

1. Iragari da : Azpeiti'ko alderdian, ostera eskolatan kristau-euskal-ikastaroa beñi tu dala.

2. Erizkizundi Irukoitza zerbait ere bete da emen da an egin diran lanez. Orain ordean ondo gertu ta moldatu bear dira lan oyek. Auxe egitea Euskaltzaindi etxeko langileai egotzi zaye.

3. Bazkide aberats batzuk Euskaltzaindiak bereganatu bear litukeala itz egin da oñela noski sorospide geyago izango luke-ta. Aipatu dira Bilbo'ko jaun batzuek; aurrezki-kutzak ere bai, bañan ez da ezer erabaki.

4. Ormaetxea urgazle jaunak bere lan bat irakurri du : *Pasividad del verbo vasco* : gai au lendik Schuchardt jaunak erabili du. Oni erantzun nai dio Ormaetxea jaunak esanik, euskaldunok ezdegula *pasivo*-rik somatzen edo bururatzen gure aditza darabilkigunean.

Oni erantzun dio Urkijo jaunak, ez dala ori (Ormaetxea jaunaren gaya), Schuchardt jaunak erabili ta dakařena.

5. Eguskitza jaunak Azkue'ren *Morfología*-ri adibide batzuek jaři nai dizkio, *formas familiares*. *Morfología* ořek dakařen gai edo atalean : Eguskitza jaunak dio : *dialogadas* ere esan ditezkeła. Olabide jaunak esaten digu : Eguskitza jaunaren idazki au gure *Euskera*'n azaldu bear dala, batez ere Euskaltzaindiaren arazo gain-gaiřekoa da-ta : Ořelako edo ideko lanak bildu ta ondo gorde.

6. Azkue jaunak bere *Morfología* irakuři du.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi ta ototzez amaitu da batzařaldia.

Bilbo'ko Aldundi-Jauregian 1925'ko Ilbeltza'ren 30'an.

Auřeko agiriyan aipatzen diran euskaltzain berberak bildu dira : urgazletatik Oleaga jauna bakařik.

1. Azkue jaunak bere *Morfología*-ri azken irakurpena eman dio.

2. Euskaltzaindiak erabaki du : euskaltzain ba-koitzak, bi ilbetetik bein bederik, euskal-gayetatik zerbait ekaři dezala, auřez ordea Euskaltzainburuari zer dakařen adierazi-ta.

3. Euskaltzaindiaren urteko diru gora-berak irakuři ditu Altube diruzai jaunak ta ona nola datozař.